

OINARRI ARAUTZAILEAK, ALDI BATERAKO LANGILE LAN-KONTRATUDUNAK HAUTATZEKO HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU SOZIOZIBILITATE PUBLIKOAN KONTABILITATE ADMINISTRARI POSTU BAT PREMIAZ ORDEZTEKO, ETA ANTZEKO EZAUGARRIAK DITUZTEN POSTU ETA KONTRATUETARAKO LAN POLTSA BAT SORTZEKO

LEHENENGO OINARRIA.- DEIALDIAREN HELBURUA

Oinarri hauen helburua da langileak hautatzeko prozedura arautzea eta premiaz izapidetzea, kontabilitate administrari lanpostu bat behin-behinean betetzeko, kontuan izanik lanpostuaren titularrak eszedentzian egongo dela gutxienez urtebetez —gehienez ere lau urtera arte luzatzeko aukerarekin—.

Era berean, oinarrion helburua da lan poltsa bat eratzea antzeko lanpostu eta kontratuatarako.

Justifikaturik dago deialdiaren premiazkotasuna, beharrezkoa baita langile bat atxikirik edukitzea kontabilitateko administrari lanpostuaren eginkizunetara, kontuan harturik lanpostu hori hutsik dagoela behin-behinean, titularrak eszedentzia hartu ondotik.

Lanposturako izendapenean, aintzakotzat hartuko dira merezimendu eta gaitasun printzipioak, bai eta egokitasun irizpideak ere, eta une oro bermatuko dira publikotasuna eta lehia.

Besteak beste, hauek dira lanpostuari lotutako funtzio nagusiak:

- Kontabilitatea eta fakturazioa: kontabilitate zikloaren kudeaketa osoa (fakturak kontabilizatzea, banku mugimenduak eta abar) eta fakturak jaulkitzea.
- Diruzaintzako administrazio kudeaketak, kobrantzen eta ordainketen jarraipena egitea, eta abar.
- Gutunak eta askotariko dokumentuak idaztea eta transkribatzea.
- Laguntza logistikoa ematea jarduera berezietan.

- Dokumentuak idaztea.
- Espedienteak izapidetzea.
- Dagokion administrazio unitateko espedienteak, proposamenak eta abar abiaraztea, idaztea eta izapidetzea.
- Espedienteak, dokumentuak eta abar erregistratzea, artxibatzea eta kontrolatzea.
- Ordenagailu terminalak eta testu tratamenduak erabiltzea.
- Jendeari informazioa eta arreta ematea.
- Oro har, aurrekoen antzeko beste edozein eginkizun, bai eta arduradunek agintzen dizkietenak ere.

Gaitasun hauek eskatzen dira:

- Aipaturiko funtzioak betetzeko eta taldean lan egiteko gaitasuna.
- Bezeroari arreta emateko, erreklamazioei erantzuteko eta idatzizko eta ahozko komunikaziorako gaitasunekin loturiko ezagutza espezifikoak

Kontratazioa behin-behineko lan kontratuaren modalitatean egingo da, Langileen Estatutuaren 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta gehienez 3 hilabeteko probaldia izango du.

2024an esleituriko ordainsaria urtean 35.0000 euro gordin izango da.

Deialdi honi aplikagarri zaio *Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52., 53., 54. eta 55. artikuluek ezartzen dutena (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 261. zk., 2015/10/30).*

Deialdi hau sozietatearen webgunean (www.ghk.eus), Lanbiden, OTEIC laguntzaile teknikoaren atarian (www.oteic.com) eta Interneteko enplegu orrietan argitaratuko da.

BIGARREN OINARRIA.- IZANGAIEN BETEKIZUNAK

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Nazionalitatea. Europar Batasuneko estatu kideren bateko herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraikiz, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
- b) Adina. Hamasei urte beteta edukitzea eta ez gainditzea nahitaezko erretirorako gehieneko adina.
- c) Titulazioa. Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako Prestakuntza Zikloko titulua edo titulazio baliokidea izatea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.
- d) Gutxienez bi urteko esperientzia izatea lehen oinarrian deskribatutakoen antzeko eginkizunetan eta zereginetan, edukiari eta erantzukizun mailari dagokienez. Esperientzia hori Gizarte Segurantzak, enpresak edo administrazio publikoek emaniko kotizazio ziurtagirien bidez egiaztatuko da.
- e) Euskaraz jakitea, 2. hizkuntza eskakizunarekin (2. HE) pareka daitekeen mailan; 2. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria edo, kasuaren arabera, 2. hizkuntza eskakizunetik gorako ziurtagiria aurkeztu beharko da, halakorik izanez gero, edo, aplikatzekoa den araudiaren arabera, parekagarriak diren beste titulu ofizial batzuk.
- f) Erabiltzaile mailako informatika ezagutzak (Microsoft Windows XP sistema eragilea edo berriagoa eta Microsoft Excel eta Word bulegotika aplikazioak); hautaketa prozesuan egiaztatuko dira.
- g) Gidabaimena eta ibilgailu propioa izatea, kontuan izanik lanpostua Gipuzkoako Ingurumen Gunean dagoela, Zubietan (Donostia).

h) Gaitasun funtzionala. Ez izatea lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzearekin bateraezina den gaixotasunik edo mugapen fisiko-psikikorik.

i) Gaikuntza. Ez egotea baztertuta autonomia erkidegoetako zernahi herri administrazioaren edo konstituzio edo estatutu organoren zerbitzuetatik diziplina espediente bidez, eta ez izatea enplegu edo kargu publikoetarako desgaikuntza — erabatekoa zein berezia— ezartzen duen ebazpen judizialik. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ez egotea desgaituta edo horren pareko egoeraren batean, eta bere estatuan ez edukitzea enplegu publiko bat izateko eragozpen izango litzatekeen diziplina zehapenik edo parekorik.

Izangaiek eskabide orriko erantzukizunpeko adierazpenaren bidez azaldu beharko dute betetzen dituztela parte hartzeko eskakizunak. Hautatutako izangaiari agiri bidez egiaztatzeko eskatuko zaio.

HIRUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUA

PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA, MODUA ETA LEKUA.

EPEA. 15 lanegun, eskaintza GHK SAUren atarian (<https://ghk.eus/ofertas-de-empleo.htm>) eta OTEIC laguntzaile teknikoaren atarian (www.oteic.com, lanpostuen atala) argitaratzen denetik aurrera, eta, zehazki, 2024ko ekainaren 13tik uztailearen 3ra.

MODUA. Parte hartzeko eskabideak oinarri hauekin batera doan eskabide orrian aurkeztuko dira, eta, harekin batera, CV eguneratua erantsiko da.

LEKUA. Parte hartzeko eskabideak aurkezteko lekua edo bitartekoak:

- Posta elektronikoz: info@ghk.eus

- Aurrez aurre edo posta ziurtatu bidez, bidalketa data zehaztuta, GHK SAU Sozietatearen Erregistro Orokorrean (Gorostutza 2-1, 20160, Donostia), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

IZANGAIAK ONARTZEA.

OTEIC laguntzaile teknikoak 2. oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta prozeduran onartzen diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsiko du.

Prozesua amaitu ondotik, hautatutako izangaiari eskatuko zaio aurkez dezala prozesu honetan eskatu eta baloratu den dokumentazioaren jatorrizkoa. Ezin badu aurkeztu, bertan behera geratuko da prozeduraren xede den lan kontraturako eskubidea.

1. FASEA. MEREZIMENDU LEHIAKETA. PUNTUAZIOA: 30 puntu

Izangaiak parte hartzeko eskabide orriko erantzukizunpeko adierazpen bidez alegatutako merezimenduak baloratuko dira. Adierazpen horretan, baloratu beharreko irizpideekin bat datozen alderdi guztiak zehaztu beharko dira. Horrek ez du galaraziko, halere, eskatzen diren egiaztagirien kopiak aurkeztu beharra, alderdi hauei dagokienez:

a) EAEko bi hizkuntza ofizialen ahozko eta idatzizko ezagutzak: Euskararen 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna, edo titulazio ofizial baliokidea:

- 3. HE: 2 puntu.

- 4. HE: 3 puntu.

b) Ingelesa jakitea B1 mailan edo baliokideetan: 2 puntu.

c) Edukiari eta erantzukizun mailari dagokienez, lanpostu berdinetan edo antzekoetan izandako lan esperientzia, parte hartzeko eskatutakoaz gainera: 0,20 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko; gehienez ere 15 puntu.

Esperientzia egiaztatzeko, Gizarte Segurantzako kotizazio ziurtagirien kopiak, enpresaren edo administrazio publikoen ziurtagiriak eta, kasuaren arabera, lanpostu motari eta betetzen diren funtzioei buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira.

d) Lanposturako eskatzen diren eremuekin lotutako prestakuntza osagarria. Prestakuntza ordu bakoitzeko 3 puntu emango dira; gehienez ere 10 puntu.

Egindako ikastaroen ziurtagirien kopiaren bidez egiaztatuko da; agiri horietan ikastaroen iraupena jasoko da, ordutan.

e) Aplikazio informatikoen ezagutza: puntu 1 ikastaro edo ziurtagiri bakoitzeko; gehienez 5 puntu.

Ikastaroen kopia bidez egiaztatuko da.

OTEIC laguntzaile teknikoak esperientziaren nolakotasuna eta prestakuntza edukiak baloratuko ditu, lanposturako izan dezaketen onuraren arabera.

Puntuazio handiena duten 15 izangaiak igaroko dira hurrengo fasera, eta, berdinketa izanez gero, handitu egingo da zerrenda hori, harik eta puntuazio bera duten izangai guztiak sartu arte.

Hautaketa prozesuan onartutako izangai kopurua 15 baino txikiagoa bada eta, ondorioz, ez bada beharrezkoa 1. fasean puntuaziorik handiena lortu duten 15 izangaien irizpidea aplikatzea 2. fasera igarotzeko (curriculum eta gaitasun elkarriketa), aurrera egin ahal izango da 2. fasean, aurreko fasea ebatzi arte itxaron beharrik izan gabe.

Hautatutako izangaiak, dagokion lan kontratua formalizatu aurretik, beharrezko egiaztatagiriak aurkeztu beharko ditu, egokiro egiaztatzeko betetzen dituela balioetsitako baldintzak eta merezimenduak.

2. FASEA. CURRICULUM ETA GAITASUN ELKARRIZKETA. PUNTUAZIOA: 70 puntu

Hautaketa prozesu hori izapidetzeko kontratatutako laguntzaile teknikoak curriculum eta gaitasun elkarrizketa egingo die aurreko fasean ezarritako lehenbiziko irizpidea gainditu duten izangaiei.

Laguntzaile teknikoak puntuak esleitzeko proposamena egingo du.

Gutxienez 35 puntu lortu beharko dira fase hau gainditzeko.

LAUGARREN OINARRIA.- IZENDAPENA.

Laguntzaile teknikoak izangaien lehentasun zerrenda proposatuko dio GHK SAUri, erabaki hori justifikatzen duen txosten batekin arrazoituta eta izapidetutako prozesua zehaztuta. Organo eskudunak zerrenda hori baliatuko du hartu beharreko izendapen erabakia justifikatzeko.

Era berean, lan poltsa bat eratuko da, GHK SAUK aurrera begira langileak kontratatu ahal izateko, premia ez-estrukturaletan eta aldi baterako lan kontratuen bidez.

BOSGARREN OINARRIA.- AURKARATZEAK

Deialdi honen oinarriak eta haren ondoriozko egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako kasu eta moduetan.

DATU PERTSONALAK BABESTEIA

GHK SAU izango da prozesu honetan eskatzen edo sortzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduradun, eta datuok biltzearen helburua izango da prozesuan parte hartzen duten pertsonen gaitasun profesionala ebaluatzea; horrenbestez, arrazoi horrekin dago legitimatuta, Datu Pertsonalak Babesteko Europako Erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

Ezarritako segurtasun neurriak bat datoz Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2020 Errege Dekretuan aurreikusitakoekin.

GHK SAUko zuzendari nagusiak, Estatutu Sozialen arabera dagozkion langileen buruzagitza nagusia baliatzeko ahala egikaritzuz, ontzat ematen ditu oinarri hauek, eta ontzat ematen ditu, orobat, laguntzaile teknikoaren kontratazioa eta egindako deialdia, kontuan izanik betiere justifikatuta daudela kontratazioaren beharra eta premia.

Donostia, 2024ko ekainak 12



GHK SAUko Zuzendari Nagusia